

# Haurrentzako musika?

Helena Casas

Ez, eskerrik asko.

Ziri ederra sartu ziguten, aspaldi jada, haurrentzako janariaren kontura, harako “nire lehen jogurta” harekin. Haurrentzako janari berezia? Amaren bularra baino hoberik... Haurrentzako arropa? Arroparen neurria da axola duen bakarra. Haurrei ez die axola zer itxura daukaten; kontu garrantzitsuagoak dabilizate buruan.

Esan didatenez, industria-iraultzarekin batera sortu zen eskola, amek lantegietan ere jardun ahal izan zezaten. Eskolek, presondegiek, ospitaleek eta geriatrikoek ekarri zuten azkenean biztanleria produktiboaren eta ez-produktiboaren (hots, enbarazu egiten duenaren) arteko bereizketa. Baina inork enbarazu egiteak ez du zertan esan nahi beste inorentzako diru-iturri izan ez daitekeenik... Haurrentzako musika delakoa izan da azkenekoa, pastelaren ginga. Zeren... ea: zer arraioengatik izan behar du txarra

gure neska-mutikoek Bachen suite bat entzutea? Edo kantu ye-ye italiar bat?

Nire ustez, kulturak haurrentzako aproposa izan behar du, egokia izango bada ezertarako. Horretan, gurasoek dute azken hitza. Ordu-tegi eta bolumen egokietan entzun ahal izateak haurrentzat fisikoki aproposa dela esan nahiko luke. Niri neuri musika ozenak traba handia egiten dit eta gaueko ordu txiki-txiki kontzertuetan lokartu egiten naiz, ezina zait arretari eustea.

Hau da, pertsona bakoitzak ezau-garri jakin batzuk ditu, adinak edo izaerak markatuta, eta ikuskizun artistiko bat hobeto edo okerrago egokituko zaio horren arabera.

Bestetik, “edukien” kontua dago. Musika, hasieran (irakurri dudanez eta neronen hausnarketek berretsi didatenez), oso gauza praktikoa zen; eta horregatik zen hain beharrezkoa. Ehizatze, goldatzeko,

euria eragiteko, haurra loarazteko, gertaera naturalak edo sozialak ospatzeko (ezkontzak, heriotzak, jaiotzak) erabiltzen zen. Kanten hitzetan, kontatzen ziren istorioetan, bortxakeriazko eta lizunkeriazko ekintzak azaltzen hastean hasi ziren gauzak nahasten. Haurrak edo lotan egoten ziren edo kanta-lekutik kanpo, ez baitziren tabernara joaten; baina litekeena da dena entzutea eta hain babestuta ez egotea.

Eta tabernez ari garela, oraindik asmatu gabe dago “nire lehen whiskia”. Egon! Bada, bai, alkoholik gabeko cava bat... (urik gabeko igerileku bat, inor ito ez dadin), zentzugabekeria handiagorik! Ez da beharrezkoa haurrek denetarik egin dezaten, ezta? (Ez dute automobilik gidatzen). Oso ondo datorkie gauza gutxiago egitea, jolasteko eta aspertzeko nahikoa denbora izatea. Hitzetan ez bada asaldatzeko moduko ezer esaten, eragozpenik gabe goza dezakete musika horretaz haurrek. Zein da arazoa?



Ez genuke gatzgabeko musika egin behar, hiztegi urrikoa, ahots txepel batek kantatua (hori da, hain zuzen, helduok egiten duguna, haurrak imitatzen saiatzen garenean, penagarri eta lotsagarri geratzeko arriskuarekin).

Egin gogo dugun musika egin behar dugu, eta esan gogo ditugunak esan. Litekeena da haurrek hitz horiek ez ulertzea eta litekeena da ere gurasook haurrek hitz horiek entzun ditzaten nahi ez izatea, adinagatik ez dagokielako. Oso ondo, baina haurrek ez dute helduen go-goeta eta arazoez zertan kezkatu.

Haurrentzako musika delakoa ez da existitzen. Musika ona eta txarra dago, hitz dibertigarriak edo poetikoak, hunkigarriak, beldurgarriak, zantarrak, matxistak... dituena. Gurasook erabaki behar dugu zer nahi dugun gure haurrek entzutea. Baina gitarrak, biolinak eta bateriak ondo joko ditugu edo gaizki joko ditugu. Nire irudirako, musika edo

film on bat pasioz eta gogor lan eginenez egindakoa da, edozeinek goza dezakeena. Horrez gain, zailtasun intelektualeko mailak eta mailak daude.

Haur txikienek (0-3 urte, "azkar eta gaizki esanda", Ibon Sarasolak beti esan ohi zuen moduan) ez dute bizitza bera beste ikuskitzunik behar. Euren gorputza (eta gurasoena), arroparen eta lurraren testurak, belarretan dagoen guttia... miazten dihardute etengabe. Makilak hozkatzen dituzte, harriak miazkatzen, inguruko hotsak entzuten, txolarreak, taxiak, irratiak, disko-jogailuak... Bidenabar esanda, lerro hauek aprobetxatu nahi ditut honako kanpaina honi hasiera emateko: "Utzi bakean 0-3 urte birtarteko haurrak". Haurrak oso sentiberak dira eta sentiberatasun hori zimeltzerik edo gogortzerik nahi ez badugu, ingurune isil eta lasaigarriak bilatu beharko ditugu haien ztat. Hori dela eta, beste kanpaina hau ere bultzatu beharko genuke:

"Ikuskizuna hasi aurretik, isiltasuna eska dezagun!". Ez dakit zer ohitura dugun kontzertuen aurretik eta ondoren musika jartzen ibiltzeko! Ardoa edan aurretik eta ondoren, mihia ez aspertzearren, aho-barrua kalimotxoaz garbitzen ibiltzea bezalakoa da hori.

Txundituta nauka oraindik ere sentsibilizazio musikaleko ikastaroak egiten direla ikusteak... Ez dut imajinatzen Ginea Bissauko pertsona bat musika eta dantza ikasten eskolan. Zergatik? Badakitelako! (erantzungo ligukete). Parrandan ibiltzen, izkirimiriak kontatzen edo txantxak egiten ikasteko ikasgai bat jartzea bezalakoa litzateke hori. Tira, martxa honetan ez dakit ez ote garen ikasgai horren beharrean izango aurki denok!

Halako neurrigabeko gehiegitasun bat; hori ere askotan sumatu dut ikuskizunetan, bai haurrentzakoentzat, bai helduentzakoentzat. Orain, musikariak ez gara ez kantari hu-



Michael Jacksonen *Thriller* diskoan oinarritutako grafitia. Egilea: anarchosyn.

tsak, ez jotzaile hutsak. Ez, orain, hor behar ditugu izan, baita ere, eszenografia sekulakoak, argi itsugarriak, kolore deigarriko jantziak, era bateko edo besteko koreografia gutxi-asko egokiak... Eta hori gutxi balitz bezala, baita proiektzioak, txotxongiloak, zuzenean marrazten edo itzal-antzerkiak egiten dihardutenak... Zer ari zaigu gertatzen? Aspertzeko beldur gara ala? Ez ote gara gauza izango arreta diziplina bakarrera biltzeko, ala?

Iraupenaren kontua ere hor dago. Musikari adi ordu laurden bat egon, eta kito, nahikoa izaten dugu. Oso ondo, bakoitzak daki bere barrengo beharren berri. Gu helduok gauza gara, jendetasunaren izenean eta besteak ez eragoztearren, egonarriz eutsi eta artistak saioa bukatu arte itxaroteko. Baina gurasoek, haurrak aski duela ikusirik, ziztuan alde egin beharko lukete bertatik, besteei enbarazu ez egitearren eta haurra ez gehiago zigortzearren. Edo, ikuski-zunera sartu aurretik kontuan hartu beharko lukete haurra une horretan nola dagoen, arretari eusteko gauza

izango ote den edota jolasteko irrikaz dagoen une batean harrapatu dugun. Sentitzen dut, baina pape-rontzira bota beharko dituzue sarre-rak: bizitzan lehenetsunak daude!

Haur batentzat, gurasoak, izeba-osabak, lehengusu-lehengusinak dira kantari onenak. Ezaguna duten norbait. Baita ipuin-kontalari onenak ere. Ez gastatu dirua haurren munduaren barruan artista gisa betetzen duzuen toki guztiz nagusia ezezagun baten mesedetan galtzeko, aprobeitza ezazue orain, haurrek idolotzat zauzkatela. Eta oso txarrak zaretela pentsatzen baduzue edo kantatzeko gogorik ez baduzue, ba, orduan, beti daukazue aukera gustuko diskoak jarri eta elkarrekin entzuteko edo dantzatzeko. Hori dugu erritmoa barneratzeko eta geuretzeko modurik onena!

Gauza magikoa da musika (eta hori, ni ez naizela batere hippya). Itxura batean, ezertarako balio ez duen gauza bat da: besterik da arnasa hartzea, jatea, lo egitea, zenbatzea,

irakurtzea, idaztea, etxeak eraikitzea, arropa jostea edo pertzak egitea! Estualdiak pixka bat arintzeko balio izaten du, edo, gutxienez, etsipen erabatekoan ez jausteko. Musikak aldarte onean jartzen gaitu. Badakit, depresio-kontrakoa ere bada, bizkorgarria, lasaigarria, talde barruko elkartasuna sendotzen du, sentsuala da... Musikoterapia ikasi izan banu, horren atzean dagoen arrazoi zientifikoa azaldu nitzuke. Dena dela, begi-bistakoak dira musikaren ondorioak.

Taldean kantatzea demasa da eta bakarka dantzatzea, askatzailea. Antzina, lan askok zeinek bere doinua izaten zuen, erritmo jarraitu bati eutsi ahal izateko, eguneroko egitekoa hain aspergarria gerta ez zedin, *mantra* moduko batean sartuta buru-belarri jarduteko. Abestu ere egiten zen, lana ondo atera zedin. Lan ondo eginaren berme moduko bat zen.

Harrikoa egiteko orduan, adibidez, musikarekin edo gabe jardutea... ez dago kolorerik!



[Vectorportal \(Wikimedia Commons\)](#).

Musikak bizitzara errotzen zaitu. Bizitzen laguntzen dizu, bizitzak arazoizko zentzurik ez duela ohartzen zarenean. Horregatik, musikarekin konexio sakoneko harreman bat izaten laguntzen badiegu, ahalmen handiko tresna bat ematen ariko gatazkie haurrei.

Helena Casas Sal dut izena, eta musikagilea naiz, Udal Musika Kontserbatorioan ibilia naizen arren. Musikaria banaiz txikitari gurasoak etxean kantatzen entzuteko zortea izan nuelako da, bertan entseatzeko zutelako, haien musika klasikoko diskoak entzuten nituelako. Sentitzen dut, ez naiz idazlea eta burura etorri ahala bota ditut hona musikari eta haurrei buruzko nire ideiak, hari bati jarraitu gabe eta modu nahaspilatsuan.

Post-data: Musika “heziketa” oso bat lortzeko, bada ezinbestekoa den disko bat: Michael Jacksonen *Thriller* delakoa.

“La música para niños no existe. Se puede distinguir entre la buena música y la mala. Hay música de letras divertidas, poéticas, punzantes, aterradoras, indecentes, machistas... Nos corresponde a los padres la decisión de qué tipo de música queremos que escuchen nuestros hijos e hijas. Pero las guitarras, los violines y las baterías estarán bien o mal tocados. A mi juicio, una buena canción o una buena película es aquella que es fruto de la pasión y el trabajo, y que cualquier persona puede apreciar. Aunque existen, por descontado, diferentes niveles de dificultad intelectual.

(...)

La música te arraiga a la vida. Te ayuda a vivir cuando descubres que la vida no tiene un sentido racional. Por eso, si logramos que el público infantil tenga una conexión profunda con la música, estaremos proporcionándoles una herramienta de gran potencial”.

“There’s no such thing as music for kids. You can distinguish between good and bad music. There’s music with amusing, poetic, sharp, terrifying, indecent, macho lyrics... It is up to us parents to decide what kind of music we want our children to listen to. But guitars, violins and drum kits can be played well or badly. In my view, a good song or a good film is one that is the outcome of passion and work, and which anyone can appreciate. However, we take it for granted that there are different levels of intellectual difficulty.

(...)

Music anchors you in life. It helps you to live when you discover that life has no rational meaning. That is why if we can get children’s audiences to build a deep connection with music, we will be providing them with a tool of great potential”.